

## **FAKTURAZIOAREN INGURUKO BETEBEHARREN ARAUDIA**

**18/2013 Foru Dekretua, maiatzaren 28ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, onartu egiten da fakturazio betebeharren arautegia.**

**(ALHAO, 64. zk., 13-6-5ekoa).**

Araudi hau martxoaren 23ko 24/2004 Foru Dekretuaren I. eranskinekoaren ordezkoa da (foru dekretu horrek fakturazioaren inguruko betebeharren araudia onartu zuen eta apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuak onartutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araudia aldatu zuen).

Fakturazioaren araudi berria onartzearen helburua 2010/45/UE Zuzentarauak fakturazioaren arloan egindako aldaketak Arabako zerga antolamenduan txertatzea da.

Zuzentaru horren helburuak hauexek dira: subjektu pasiboen gaineko zama administratiboak arintzea, paperezko fakturak eta faktura elektronikoak berdintzatzea bermatzea, transakzio ekonomikoak erraztea, eta agente ekonomikoen segurtasun juridikoa sendotzea arlo honetako arautegiaren aplikazioan.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak horri buruz emandako txostenak ikusi dira.

Hori dela bide, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran aztertu ondoren, hauxe

### **XEDATZEN DUT**

#### **1. artikulua. Fakturazioaren inguruko betebeharren araudia onartzea.**

Fakturazioaren inguruko betebeharren araudia onartu da; testua foru dekretu honen eranskinean dago.

#### **2. artikulua. Finantza eragiketa batzuk frogatzea.**

1. Higigarrien baloreak eskuratu direla frogatzeko bide hauek erabil daitezke: esku hartu duen fede-emaileak egindako agiri publikoa edo finantza erakundeak (edo inbertsio zerbitzuetako enpresak) emandako agiria, eragiketaren datu guztiak jasotzen dituen.

Etekin inplizitua duten finantza aktiboak eta eskualdatu, amortizatu edo itzultzen direnean atxikipena aplikatu behar zaion etekin esplizitua sortzen duten beste aktibo batzuk eskuratu izana frogatzeko ondoko hauetan xedatutakoa aplikatu behar da: batetik, Sozietateen gaineko Zergaren Araudia onartu duen abenduaren 10eko 60/2002 Foru Dekretuko 52. artikulua; bestetik, abenduaren 11ko 76/2007 Foru Dekretuaren bidez onartutako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudiko 112. artikulua.

2. Kreditu erakundeek egiten dituzten eragiketen ondoriozko gastuak eta kenkariak frogatzeko haiek emandako agiria, laburpena edo kargu orria erabil daiteke. Agiri horietan fakturretako ohiko datuak agertu behar dira, zenbakia eta saila izan ezik.

## **XEDAPEN IRAGANKORRA**

**Bakarra.** Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 23ko 24/2004 Foru Dekretuaren arabera (honek fakturazioaren inguruko betebeharren araudia onartu zuen eta apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuak onartutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araudia aldatu zuen) eta fakturazioaren inguruko betebeharrak arautu dituen apirilaren 3ko 49/2001 Foru Dekretuaren arabera ematen diren baimenen indarraldiaren araubidea.

1. Ondoren aipatuko diren baimenak berariaz indargabetu arte egongo dira indarrean:

- a) Enpresaburuek eta profesionalek fakturak egin eta eman beharra arautu duen apirilaren 3ko 49/2001 Foru Dekretuko 2. artikuluko 2. idatz zatiko d) letran eta fakturazioaren inguruko betebeharrak arautu dituen martxoaren 23ko 24/2004 Foru Dekretuko 3. artikuluko 1. idatz zatiko d) letran ezarritakoarekin bat etorritik Arabako Foru Aldundiaren Zerga Administrazioako organo eskudunak fakturarik ez egiteko ematen dituen baimenak.
- b) Enpresaburuek eta profesionalek fakturak egin eta eman beharra arautu duen apirilaren 3ko 49/2001 Foru Dekretuko 10. artikuluko 3. idatz zatiko bigarren paragrafoan eta fakturazioaren inguruko betebeharrak arautu dituen martxoaren 23ko 24/2004 Foru Dekretuko 13. artikuluko 4. idatz zatian ezarritakoarekin bat etorritik Arabako Foru Aldundiko organo eskudunak zuzendutako fakturak ez zehazteko eta faktura zuzentzailearen aldia jartzea nahikoa izateko ematen dituen baimenak.
- c) Fakturazioaren inguruko betebeharrak arautu dituen martxoaren 23ko 24/2004 Foru Dekretuko 18. artikuluko 1. idatz zatiko c) letran ezarritakoarekin bat etorritik Zerga Administrazioako organo eskudunak ematen dituen baimenak, baldin eta baimendutakoa bat badator foru dekretu honen bidez onartutako fakturazioaren inguruko betebeharren araudiko 10. artikuluan ezarritakoarekin.

2. Ondoko hauek 2013ko urtarrilaren 1era arte egongo dira indarrean: enpresaburuek eta profesionalek fakturak egin eta eman beharra arautu duen apirilaren 3ko 49/2001 Foru Dekretuko 4. artikuluko 1. idatz zatian ezarritakoarekin bat etorritik Arabako Foru Aldundiko organo eskudunak jasotzailearen datuak ez adierazteko ematen dituen baimenak.

3. Zerga Administrazioako organo eskudunak fakturazioaren inguruko betebeharrak arautu dituen martxoaren 23ko 24/2004 Foru Dekretuko 6. artikuluko 1. idatz zatian adierazten diren aipamen guztiak fakturan ez jartzeko dekretu bereko 6. artikuluko 7. eta 8. idatz zatietan ezarritakoarekin bat etorritik ematen dituen baimenak 2013ko urtarrilaren 1era arte egongo dira indarrean. Aurrekotik salbu daude ondoko datuak dituzten fakturak egiteko ematen diren baimenak: faktura noiz egin den, faktura nork egin behar izan duen, eman den ondasuna edo egin den zerbitzua nolakoa den, zerga

kuota edo hura kalkulatzeko behar diren datuak; baimen hauek indarrean egongo dira berriaz indargabetu arte.

**4.** Enpresaburuek eta profesionalak fakturak egin eta eman beharra arautu duen apirilaren 3ko 49/2001 Foru Dekretuko 4. artikuluko 2. idatz zatiko n) letran ezarritakoarekin bat etorritik Arabako Foru Aldundiko organo eskudunak ordezkotako agiriak egiteko ematen dituen baimenak eta fakturazioaren inguruko betebeharrak arautu dituen martxoaren 23ko 24/2004 Foru Dekretuko 4. artikuluko 1. idatz zatiko ñ) letran ezarritakoarekin bat etorritik Zerga Administrazioako organo eskudunak fakturen ordezkotako agiriak egiteko ematen dituen baimenak faktura erraztuak egiteko baimentzat hartuko dira, foru dekretu honen bidez onartutako fakturazioaren inguruko betebeharren araudiko 4. artikuluko 3. idatz zatian xedatutakoarekin bat etorritik. Baimen hauek indarrean egongo dira berriaz indargabetu arte.

## **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

**Lehenengoa.** Ondokoak indargabetu dira: fakturazioaren inguruko betebeharren araudia onartu eta apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuak onartutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araudia aldatu duen martxoaren 23ko 24/2004 Foru Dekretuaren I. eranskina (fakturazioaren inguruko betebeharren araudiaren testua); aurreko foru dekretu bereko hirugarren artikuluko hogeita laugarren idatz zatia eta xedapen iragankor bakarra.

**Bigarrena.** Gainera, foru dekretu honetan ezarritakoaren aurka dauden maila bereko edo beheagoko mailako xedapen guztiak indargabetu dira.

## **AZKEN XEDAPENAK**

**Lehenengoa. Indarrean jartzea.**

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean eta 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

**Bigarrena. Araugintzarako gaikuntza.**

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari ahalmena eman zaio foru dekretu hau aplikatzeko eta aurrera eramateko behar diren xedapen guztiak emateko.

## ATARIKO TITULUA

### ERAGIKETAK DOKUMENTATU BEHARRA

#### 1. artikulua. Eragiketen frogagiriak egin, eman eta gorde beharra.

Enpresaburuek eta profesionalek beren enpresa edo lanbide jardueran egiten dituzten eragiketen fakturak edo bestelako frogagiriak egin eta eman behar dituzte, eta kopiak edo matrizeak gorde. Halaber, beren jardueran ari direla, beste enpresaburu edo profesional batzuen eragiketen hartzaile direnean, eragiketa horiengatik ematen dizkieten fakturak edo frogagiriak gorde behar dituzte.

Orobat, ez enpresaburu ez profesional ez diren beste pertsona eta erakunde batzuek ere egiten dituzten eragiketen fakturak edo bestelako frogagiriak egin eta gorde behar dituzte araudi honetan ezarri den bezala.

## I. KAPITULUA

### NOIZ EGIN DEN FAKTURA

#### 2. artikulua. Faktura egin beharra.

1. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Arauko 164.Bat.3 artikuluekin bat etorritik, enpresaburuek eta profesionalek faktura bat eta horren kopia bat egin behar dituzte euren jardueran ari direla egiten duten ondasun emate eta zerbitzu bakoitzarengatik, are Zergaren kargapean ez daudenengatik eta kargapean egon arren salbuetsita daudenengatik ere. Betebehar hau araudi honetan ezarritakoarekin bat etorritik bete behar dute, eta salbuespenak bertan ezarritakoak baizik ez dira izango. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide berezietako batean dauden enpresariak eta profesionalek ere aurrekoa bete behar dute.

Ondasun bat eman edo zerbitzu bat egin aurretik ordainketaren bat jasotzen bada eta aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera ondasun ematea edo zerbitzugintza fakturatu beharrekoa bada, ordainketaren faktura eta fakturaren kopia egin behar dira. Salbuespena: Zergari buruzko Foru Arauko 25. artikuluan xedatutakoaren arabera kargatik salbuetsita dauden ondasun emateetan ez dago aurreko bete beharrik.

2. (7) Honako kasu hauetan faktura eta fakturaren kopia egin behar dira:

- a) Hartzailea enpresaburua edo profesionala izanik hala ari den eragiketak, eragiketa egiten duen enpresaburuaren edo profesionalaren zerga araubidea gorabehera, eta hartzaileak zergen arloko eskubideren bat baliatzeakozkatzen dituen eragiketak.
- b) Europar Batasuneko estatuetera egiten diren ondasun emateak, zergari buruzko foru arauko 25. artikuluan azaldu den bezala.

- c) Zergari buruzko foru arauko 68. Hiru.a) eta Bost artikuluan aipatzen diren ondasun emateak, baldin eta apartatu horietako arauak aplikatuz ondasun ematea zergaren aplikazio eremuan egintzat hartu behar bada. Alabaina, identifikazioko estatuak zehaztu beharko du faktura egin behar den ala ez, baldin eta ondasun emate horiek zergari buruzko arauaren IX. tituluaren XI. kapituluaren 3. atalean aipatzen den araubide bereziaren menpe badaude, eta baldin eta identifikazioko estatu kidea ez bada Espainiako Erresuma.
- d) Europako Batasunetik kanpora bidali edo garraiatutako ondasunen emateak, zergari buruzko foru arauko 21.1. eta 2. artikuluan aipatzen direnak; salbuespena: zergarik gabeko dendetan egiten direnak, artikuluko bereko 2. B) apartatuan aipatzen direnak.
- e) Eskura jarri aurretik instalatu edo muntatu behar diren ondasunen emateak, zergari buruzko foru arauko 68. Bi.2. artikuluan aipatzen direnak.
- f) Hartzailea ez enpresaburu edo ez profesional gisa ez diharduen pertsona juridikoa den eragiketak, haren egoitza zergaren aplikazio lurraldean egon zein ez, eta hartzailea Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 2. artikuluan aipatzen diren administrazio publikoetako bat den eragiketak.

**3. (5) (7)** Aurreko apartatuetan aipatu den faktura egiteko betebeharra, araudi honetan ezarri den bezala bete behar da, kasu hauetan:

- a) Baldin eta eragiketak zergari buruzko arauaren IX. tituluaren XI. kapituluaren artikuluan aipatzen diren araubide bereziaren menpe badaude, eta baldin eta identifikazioko estatu kidea Espainiako Erresuma bada.
- b) Aurreko a) letran aipatutakoak ez diren eragiketak badira, kasu hauetan:
  - a') Ondasun ematea edo zerbitzua zergaren aplikazio lurraldean egintzat jotzen denean; salbuespena: ondasunaren hornitzaileak edo zerbitzugileak ez edukitzea egoitza lurralde horretan, zergaren subjektu pasiboa kargapeko eragiketaren hartzailea izatea eta ez egitea faktura araudi honetako 5. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.
  - b') Ondasunaren hornitzaileak edo zerbitzugileakegoitza zergaren aplikazio lurraldean daukanean edo bertan daukanean establezimendu iraunkorra edo bere ohiko etxebizitza, eta handik ematen direnean ondasunak edo zerbitzuak, baina, horiei aplikatzen zaizkien kokapen arauak direla eta, ondasun emate edo zerbitzu horiek zergaren aplikazio lurraldean egintzat jotzen ez badira, honako kasu hauetan:
    - a'') Eragiketa Europar Batasuneko beste estatu batean kargatzen denean, zergaren subjektu pasiboa eragiketaren hartzailea denean eta faktura hark egiten ez duenean ondasunaren hornitzailearen edo zerbitzugilearen izenean eta haren kontura.
    - b'') Eragiketa Erkidegotik kanpo egintzat jotzen denean.

4. Zergari buruzko Foru Arauko 97. artikuluko lehenengo idatz zatiko 4. zenbakian aipatzen den kontabilitateko frogagiritzat hartuko dira eragiketen kontabilitateko idatzoharraren euskarri diren agiri guztiak, baldin eta idatzoharra egiten duena Erkidegoan egoitza ez duen enpresaburua edo profesionala bada.

### **3. artikulua. Faktura egin beharraren salbuespenak.**

1. Jarraian azalduko diren eragiketengatik ez dago zertan fakturarik egin, araudi honetako 2. artikuluko 2. idatz zatian ezarritako kasuetan izan ezik:

a) [\(5\)](#) Arauaren 20. artikulua arabera balio erantsiaren gaineko zergatik salbuetsita dauden eragiketak, salbu eta 2. apartatuan aipatzen diren eragiketak. Hala ere, derrigorrezkoa izango da faktura egitea zerga betebeharrak ez duten eragiketen kasuan, zergari buruzko arauaren 20. artikulua 1. apartatuaren 2, 3, 4, 5, 15, 20, 22, 24, 25 eta 27 zenbakien arabera.

b) Baliokidetasun errekaruaren araubide berezia aplikatu ahal zaien jardueretan ari direla enpresaburuek eta profesionalak egiten dituzten eragiketak.

Hala ere, Zergari buruzko Foru Arauko 154.Bi artikuluan aipatzen diren higiezin emateetan subjektu pasiboak salbuespenari uko egiten badio, faktura egin behar da.

c) Enpresaburuek eta profesionalak Zergaren araubide erraztuari helduta dauden jardueretan ari direla egiten dituzten eragiketak, baldin eta sortzen den kuotaren zenbatekoa sarreren kopuruaren arabera kalkulatzen ez badira.

Hala ere, Zergari buruzko Foru Arauko 123.Bat.B).3 artikulua aipatzen diren aktibo finkoen eskualdatzeengatik faktura egin behar da kasu guztietan.

d) Enpresa edo lan sektore jakinetako jardueretan aritzeko eragozpenak saihestearren Ogasun Zuzendaritzak fakturarik ez egiteko baimena ematen duen eragiketa guztiak.

2. [\(1\)](#) [\(5\)](#) Ez da zertan fakturarik egin beharko zergari buruzko arauaren 20 artikulua 1. apartatuaren 16. zenbakian eta 18. zenbakiaren a) letratik n) letrara bitartekoetan zehaztutako zerbitzuengatik, salbu eta:

a) Aplikatu beharreko kokapen arauen arabera zergaren aplikazio lurraldean egintzat jotzen badira edo Europar Batasuneko beste estatu kide batean egintzat, eta kargapekoak badira eta ez badaude salbuetsita.

b) Aplikatu beharreko kokapen arauen arabera zergaren aplikazio lurraldean egintzat jotzen badira edo Kanarrietan, Ceutan edo Melillan egintzat, eta kargapekoak badira eta salbuetsita badaude, eta aseguru erakundeak, talde inbertsioko erakundeak kudeaketa sozietateak, pentsio funtsen kudeaketa erakundeak, titulizazio funtsak eta haien kudeatzaileak eta kreditu erakundeak ez diren enpresari eta profesionalak egiten badituzte, haien jarduera ekonomikoaren egoitzaren edo aipatutako lurraldean dagoen establezimendu egonkorren bitartez.

Ogasun Zuzendaritzak faktura egin beharretik salbuetsi ahal izango ditu beste enpresari eta profesional batzuk ere, interesdunak hala eskatzen badu eta hori justifikatzen duten merkataritza edo administrazio praktikarik badago jarduera gauzatzen den sektorean edo hori justifikatzen badute fakturak egiteko baldintza teknikoek.

Eskaera egin eta 6 hilabeteko epean ez bada berariazko ebazpenik jakinarazten, eskaera ezetsizat jo dela ulertuko da.

**3.** Era berean, enpresaburuek eta profesionalak ez dute fakturarik egin behar nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezian dauden jardueretan egiten dituzten eragiketengatik, araudi honetako 16.1 artikuluan xedatutakoa gorabehera.

Zergari buruzko Foru Arauko 129. artikuluko lehenengo idatz zatiko bigarren paragrafoan aipatzen diren higiezin emateengatik faktura egin behar da nahitaez.

#### **4. artikulua. Faktura erraztuak.**

**1.** Faktura egin beharra betetzeko faktura erraztua (eta kopia) egin daiteke ondoko kasu hauetan:

a) Zenbatekoa 400 eurotik gorakoa ez denean, Balio Erantsiaren gaineko Zerga barne.

b) Faktura zuzentzaile egin behar denean.

**2.** Aurreko idatz zatian xedatutakoa eragotzi gabe, enpresaburuek eta profesionalak faktura erraztua eta horren kopia egin ahal izango dituzte zenbatekoa 3.000 eurotik gorakoa ez denean, Balio Erantsiaren gaineko Zerga barne, ondoko eragiketa hauetan:

a) Txikizkako salmentak, are ematen diren produktuen fabrikatzaileek edo egileek egiten dituztenak ere.

Horri dagokionez, ondasun higigarri korporalen edo azienden emateak txikizkako salmentatzat joko dira eragiketaren hartzailea ondasunen azken kontsumitzailea bada, enpresaburu edo profesional gisa aritu beharrean. Ez dira txikizkako salmentatzat joko nagusiki enpresa edo lanbide jardueretan erabiltzekoak diren ondasunen salmentak, hau da, horrelako jardueri dagozkien ezaugarri objektiboak, ontziak, itxura edota kontserbazio egoera dituzten ondasunen salmentak.

b) Kalez kaleko salmentak eta zerbitzuak.

c) Kontsumitzailearen etxean bertan egiten diren salmentak eta zerbitzuak.

d) Pertsonen eta beraien fardelen garraioa.

e) Jatetxeetan, tabernetan, kafetegietan, hortxata dendetan, txokolategietan eta antzeko establezimenduetan egiten diren ostalaritza eta jatetxe zerbitzuak, eta berehala kontsumitzeko diren edariak eta janariak ematea ere bai.

- f) Dantza aretoetan eta dantzalekuetan egiten diren zerbitzuak.
- g) Erabilera publikoko telefono kabinen bidez eta eramailea identifikatzen ez duten txartelen bidez egiten diren zerbitzu telefonikoak.
- h) Ile apaindegietako zerbitzuak eta edertasun institutuetan egiten direnak.
- i) Kirol instalazioak erabiltzea.
- j) Argazkiak errebelatzea eta argazki dendetan egiten diren zerbitzuak.
- k) Ibilgailuak aparkatzea.
- l) Filmak alokatzea.
- m) Tindategi eta garbitegiak zerbitzuak.
- n) Ordainpeko autobideak erabiltzea.

**3.** Aurreko idatz zatietan aipatzen direnak ez beste kasu batzuetan Ogasun Zuzendaritzak faktura erraztuak egiteko baimena eman ahal izango du, hain zuzen ere kasuan kasuko jardura sektoreko merkataritzako edo administrazioko lanek edo fakturak egiteko baldintza teknikoek 6. artikuluan aipatzen diren datu guztiak jartzea edo betekizun guztiak betetzea erabat eragozten dutenean.

**4.** Ondoko eragiketa hauengatik ezin da egin faktura errazturik:

- a) Europar Batasuneko estatuetara egiten diren ondasun emateak, Zergari buruzko Foru Arauko 25. artikuluan azaldu den bezala.
- b) [\(7\)](#) Zergari buruzko foru arauko 68.hiru.a) artikuluan aipatzen diren ondasun emateak, arau horretako IX. tituluaren XI. kapituluaren 3. atalean aipatzen den araubide bereziaren menpe daudenean izan ezik.
- c) Zergaren aplikazio lurraldean egintzat jotzen diren ondasun emateak eta zerbitzuak, baldin eta ondasunaren hornitzaileak edo zerbitzugileak ez badauka egoitza lurralde horretan, Zergaren subjektu pasiboa kargapeko eragiketaren hartzailea bada eta honek faktura araudi honetako 5. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri egiten badu.
- d) [\(7\)](#) Araudi honen 2.3.b).b') artikuluan aipatzen diren ondasun emateak eta zerbitzuak.

**5. artikulua. Faktura egin beharra hartzaileak edo hirugarren batek betetzea.**

**1.** [\(3\)](#) Foru dekretu honetako 2. artikuluan aipatutako betebeharra eragiketaren hartzaileak edo hirugarren batek bete dezake. Nolanahi ere, kasu hauetan titulu honetan ezarritako betebeharrak guztien erantzulea subjektu pasiboa izango da, hots, faktura egin behar duen enpresaburua edo profesionala.



Balio erantsiaren gaineko zergaren Araudiko 62.6 artikulua aipatutako pertsona eta entitateen kasuan, hirugarrenek edo eragiketen hartzaileek faktura emateko betebeharra betetzeko aukera hautatu badute, horren berri ematen duen zentsu aitortpena aurkeztu beharko dute; horrez gain, noiztik baliatu den eta, hala badagokio, horri uko egin izana eta ondorio data ere agerrarazi beharko dira.

**2.** 2. artikuluan aipatutako betebeharra eragiketaren hartzaileak bete ahal izango badu, ezinbestekoa da ondokoak gertatzea:

- a) Bien arteko akordioaren bidez eragiketak egiten dituen enpresaburuak edo profesionalak baimena eman behar dio eragiketen hartzaileari eragiketei buruzko fakturak egiteko. Akordioa eragiketak egin baino lehen sinatu behar da, eta bertan eragiketak zehaztu behar dira.
- b) Hori dela bide egiten den faktura bakoitza eragiketa egin duen enpresaburuak edo profesionalak onartu beharko du. Onarpenerako prozedura alderdiek hitzartuko dute.
- c) Eragiketaren hartzaileak hari dagokion faktura egiten duenean, kopia bat bidali behar dio eragiketa egin duen enpresaburuari edo profesionalari.
- d) Fakturak dokumentatzen dituzten eragiketak egin dituen enpresaburuaren edo profesionalaren izenean eta beraren kontura egin behar dira.

**3.** Enpresaburuek eta profesionalek edo Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek hirugarren batzuk kontratatu ahal izango dituzte fakturak egin beharra betetzeko.

**4.** Eragiketa baten hartzaileak edo hari dagokion faktura egiten duenak ez badauka egoitza Europar Batasunean, faktura eragiketaren hartzaileak edo hirugarren batek soilik egin dezake, Ogasun Zuzendaritzari jakinarazi ondoren. Salbuespena: hartzaileak edo faktura egiten duenak egoitza Kanarietan, Zeutan edo Melillan edukitzea edo Kontseiluak zerga, eskubide, zerga eta beste neurri batzuei dagozkien kredituen kobrantzaren arloko elkarrekiko laguntzari buruz 2010eko martxoaren 16an emandako 2010/24/UE Zuzentarauan eta Kontseiluak 2010eko urriaren 7an Balio Erantsiaren gaineko Zergaren inguruko administrazio lankidetzari eta iruzurraren kontrako borrokari buruz emandako 904/2010 Araudian ezarritakoaren antzeko elkarrekiko laguntzarako tresna juridiko bat dagoen herrialde batean.

## **II. KAPITULUA**

### **FAKTUREN BETEBEHARRAK**

#### **6. artikulua. Fakturaren edukia.**

**1.** Fakturretan eta fakturen kopietan ondoren azalduko diren datuak agertu behar dira eta ondoko baldintzak bete behar dira (horiez gainera baliteke beste datu eta baldintza

batzuk ere beharrezkoak izatea beste ondorio batzuetarako, bai eta beste aipamen batzuk behar izatea ere):

- a) Zenbakia eta, behar denean, saila. Sail bereko fakturen zenbakiak korrelatiboak izan behar dira.

Fakturak sailka egin daitezke bidezko arrazoiak daudenean; adibidez, fakturak egin behar dituenak establezimendu batean baino gehiagotan egiten baditu bere eragiketak, edo hainbat motatako eragiketak egiten baditu.

Honako faktura hauek, ordea, beti egin behar dira sailka:

1. Eragiketen hartzaileek edo 5. artikuluan aipatzen diren hirugarrenek egiten dituztenak. Fakturagile bakoitzak bere faktura saila eduki behar du.

2. Zuzentzaileak.

3. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudia onartzen duen Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuko bosgarren xedapen gehigarriarekin bat etorritik egiten direnak.

4. [\(5\)](#) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Arauaren 84. artikulua 1. apartatuaren 2. zenbakiaren g letran aurreikusitakoaren arabera egiten direnak.

5. [\(5\)](#) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Arauaren 61. quinquies artikulua 2. apartatuan aurreikusitakoaren arabera egiten direnak.

6. [\(6\)](#) TicketBAI betebeharra garatzen duen foru dekretuaren 17. artikulua arautzen duenaren arabera ematen direnak.

- b) Noiz egin den (data).

- c) Faktura egin behar duenaren eta eragiketaren hartzailearen izen-deiturak (sozietatea izanez gero, sozietatearen izen osoa).

- d) Faktura egin behar duenak eragiketan erabili duen identifikazio fiskaleko zenbakia, Europar Batasuneko kide den estatu bateko zerga administrazio eskudunak emana.

Ondoko kasu hauetan hartzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia ere jarri behar da:

1. Batasuneko beste estatu batera egiten denean Zergari buruzko Foru Arauko 25. artikulua arabera salbuetsita dagoen ondasun emate bat.

2. Eragiketaren hartzailea eragiketari dagokion BEZaren subjektu pasiboa denean.

3. Eragiketa Zergaren aplikazio lurraldean egintzat jotzen denean, faktura egin behar duen enpresaburu edo profesionalaren egoitza lurralde horretan dagoela pentsatu behar dela.

- e) Faktura luzatu behar duenaren eta eragiketaren hartzailearen helbideak.

Faktura egin behar duenak edo eragiketaren hartzaileak negozio toki finko bat baino gehiago edukiz gero, eragiketak zein egoitza edo establezimendutan egiten diren adierazi behar da, baldin eta datu hori kontuan hartu beharrekoa bada eragiketen gaineko zerga ordainketaren araubidea zehazteko.

- f) Eragiketaren deskripzioa. Eragiketaren zerga oinarria kalkulatzeko behar diren datu guztiak eman behar dira (Zergari buruzko Foru Arauko 78. eta 79. artikuluetan zerga oinarriaz ezarri den bezala); horren gainera eragiketaren zenbatekoa jarri behar da, unitate bakoitzaren prezioa sartuta, zerga kargarik gabe, eta unitate bakoitzaren prezioan sartuta ez dauden deskontu edo beherapen guztiak ere bai.
- g) Eragiketei aplikatutako zerga tasa (edo tasak).
- h) Jasanarazitako zerga kuota, egonez gero, bereiz adierazi behar da.
- i) Dokumentatzen den eragiketa zein egunetan egin den adierazi behar da edo, aurretiaz ordaindu bada faktura luzatu den egunean ez beste batean, ordainketa zein egunetan jaso den.
- j) Faktura bidez dokumentatzen den eragiketa bat Zergaren kargatik salbuetsita badago, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren sistema bateratuari buruzko azaroaren 28ko 2006/112/CE Zuzentarauan ezarritako xedapenen edo Zergari buruzko Foru Arauko manu egokien erreferentzia agertu behar da, edo eragiketa salbuetsita dagoelako adierazpena.

Letra honetan xedatutakoa aplikatu behar da hainbat eragiketa faktura bakar batean bildu eta goian esandako inguruabarrak haietako batzuetan bakarrik gertatzen direnean ere.

- k) Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Arauko 25. artikuluan aipatzen diren garraio gailuetako berri bat ematen denean, datu hauek zehaztu behar dira: garraio gailuaren ezaugarriak, zerbitzuan lehenengoz hasi den eguna, eta ematea gertatu arte ibilitako distantzia edo nabigazioan edo hegan egindako orduak.
- l) Baldin eta faktura ondasunaren hornitzaileak edo zerbitzua egin duenak gabe ondasuna eskuratzen duenak edo zerbitzua jasotzen duenak egiten badu, araudi honetako 5. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, fakturan aipamen hau agertu behar da: "fakturazioa hartzaileak".
- m) Zergaren subjektu pasiboa eragiketaren eskuratzailerak edo hartzaileak bada, fakturan aipamen hau agertu behar da: "subjektu pasiboaren inbertsioa".
- n) Bidai agentzien araubide berezia aplikatzen bada, fakturan aipamen hau agertu behar da: "bidai agentzien araubide berezia".
- o) Ondasun erabilien, arte objektuen, antzinako objektuen eta bilduma objektuen araubide berezia aplikatzen bada, fakturan hauxe agertu behar da: "ondasun

erabilien araubide berezia”, “arte objektuen araubide berezia” edo “antzinako objektuen eta bilduma objektuen araubide berezia”.

p) [\(1\)](#) Kutxa irizpidearen araubide berezia aplikatzen denean, "Kutxa irizpidearen araubide berezia"ren aipamena egin behar da.

2. Faktura batean hainbat eragiketa dokumentatzen badira, bakoitzari zerga oinarrian dagokion zatia zehaztu behar da ondoko kasu hauetan:

a) Dokumentatzen diren eragiketetako batzuk Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kargatik salbuetsita daude eta beste batzuk ez.

b) Eragiketa batzuetan Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasiboa eragiketaren hartzailea da eta beste batzuetan ez.

c) Dokumentatzen diren eragiketa guztiak ez dira kargatzen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren tasa berarekin.

3. [\(7\)](#) Araudi honetako 2.3.b).b').a”) artikuluan aipatzen diren eragiketetan, faktura egin behar duenak ez dauka zertan eman artikuluko honetako 1. apartatuko f), g) eta h) letretan aipatzen den informazioa; horren ordez, ondasun edo zerbitzuengatik zergaren kargapean dagoen zenbatekoa zehaztu behar du, eta, horretarako, ondasunen edo zerbitzuen kopurua edo irismena adierazi behar du.

4. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Arauko 97. artikuluko lehenengo idatz zatian xedatutakoari dagokionez, ondoko agiriak soilik hartuko dira fakturatzat: artikuluko honetan aipatzen diren datu guztiak zehazten eta ezarritako betekizun guztiak betetzen dituztenak.

## **7. artikulua. Faktura erraztuaren edukia.**

1. Faktura erraztuetan eta beraien kopietan ondoren aipatuko diren datuak agertu behar dira eta ezarriko diren betekizunak bete behar dira (horiez gainera baliteke beste datu eta baldintza batzuk ere beharrezkoak izatea beste ondorio batzuetarako, eta bestelako aipamenak sartu behar izatea):

a) Zenbakia eta, behar denean, saila. Sail bereko faktura erraztuen zenbakiak korrelatiboak izan behar dira.

Faktura erraztuak sailka egin daitezke bidezko arrazoiak daudenean eta, besteak beste, kasu hauetan:

1. Fakturak egin behar dituenak establezimendu batean baino gehiagotan egiten dituztenean bere eragiketak.

2. Fakturak egin behar dituenak hainbat motatako eragiketak egiten dituztenean.

3. Eragiketen hartzaileek edo araudi honetako 5. artikuluan aipatzen diren hirugarrenek egiten dituztenean; fakturagile bakoitzak bere faktura saila eduki behar du.

#### 4. Faktura zuzentzaileak.

Artikulu honetan eta 6. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik enpresaburuek eta profesionalak fakturak egiten dituztenean egutegiko urte batean egindako eragiketak dokumentatzeko, nahitaez sailka bereizi behar dituzte fakturak eta faktura erraztuak.

- b) Noiz egin den (data).
- c) Dokumentatzen den eragiketa zein egunetan egin den adierazi behar da edo, aurretiaz ordaindu bada faktura luzatu den egunetan ez beste batean, ordainketa zein egunetan jaso den.
- d) Faktura egin behar duenaren identifikazio fiskaleko zenbakia, eta izen-deiturak (sozietatea izanez gero, sozietatearen izen osoa).
- e) Eman den ondasunaren edo egin den zerbitzuaren identifikazioa.
- f) Aplikaturako zerga tasa; behar den kasuetan, "BEZ barne" azalpena ere bai.

Faktura batean hainbat eragiketa biltzen badira eta denak ez badira kargatzen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren tasa berarekin, eragiketa bakoitzaren zerga oinarria bereizita zehaztu behar da.

- g) Kontraprestazioa, guztira.
- h) Faktura zuzentzaileetan zuzendutako fakturaren erreferentzia agertu behar da, zehatza eta argia, eta zer aldatzen den azaldu behar da.
- i) [\(1\)](#) Araudi honetako 6.1 artikuluan j) - p) bitarteko letretan aipatzen diren kasuetan letra horietan ezartzen diren aipamenak egin behar dira.

**2.** Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Arauko 97. Bat artikuluan xedatutakoari dagokionez, faktura erraztua egiten duenak ondoko datu hauek adierazi beharko ditu eragiketaren hartzaileak, enpresaburua edo profesionala denak, eskatuz gero:

- a) Eragiketan erabili duen identifikazio fiskaleko zenbakia, Europar Batasuneko kide den estatu bateko zerga administrazio eskudunak emana, eta eragiketaren hartzailearen egoitzaren helbidea.
- b) Jasanarazitako zerga kuota, egonez gero, bereizita jarri behar da.

**3.** Ondoko kasu honetan ere aurreko idatz zatian aipatutako datuak agertu behar dira fakturan: eragiketaren hartzailea ez enpresaburua ez profesionala ez bada eta zerga eskubide bat baliatzeko eskatzen duenean.

**4.** Jarduera sektore bateko merkataritzako edo administrazioko lanak edo fakturak egiteko baldintza teknikoak direla eta Ogasun Zuzendaritzak uste badu aurreko idatz zatietan aipatzen diren aipamenez gainera beste batzuk agertu behar direla edo ez dagoela zertan datu guztiak jarri, hauxe egin dezake:

- a) Aurreko idatz zatietan aipatzen diren aipamenez gainera beste batzuk ere agertzeko eskatu; Nolanahi ere, ezin dira eskatu araudi honetako 6. artikuluan aipatzen direnak baino datu gehiago.
- b) Baimena eman faktura erraztua egiteko, hain zuzen ere aurreko 1. idatz zatiko a), c), f), g) eta i) letretan eta 2. idatz zatian aipatzen diren datuak ez dituen faktura; Nolanahi ere, fakturan 1. idatz zatiko f) edo g) letran aipatzen den datua agertzen ez bada, zerga kuota zehaztu behar da, edo kalkulatzeko datuak ezarri.

Ogasun Zuzendaritzako organo eskudunak idatz zati honetan aipatzen diren erabakien berri eman behar du, ezarrita dagoen bezala.

### **8. artikulua. Fakturak egiteko moduak.**

- 1. Fakturan (paperezkoa zein elektronikoa) jatorriaren egiazkotasuna eta edukiaren osotasuna direla bermatu behar dira, bai eta irakurgarritasuna ere, ematen den egunetik beretik eta gordetzen den aldi osoan.
- 2. Fakturaren (paperezkoa zein elektronikoa) jatorriaren egiazkotasunak faktura egin behar duena eta egin duena egiazkoak direla bermatzen du.

Fakturaren (paperezkoa zein elektronikoa) edukiaren osotasunak fakturan aldaketarik ez dela egin bermatzen du.

- 3. Fakturaren (paperezkoa zein elektronikoa) jatorriaren egiazkotasuna eta edukiaren osotasuna bermatzeko Zuzenbidean onartutako frogabide guztiak erabil daitezke.

Hain zuzen ere, fakturaren jatorriaren egiazkotasuna eta edukiaren osotasuna bermatzeko subjektu pasiboaren enpresa edo lanbide jarduerako ohiko kudeaketa kontrolak erabil daitezke.

Kudeaketa kontrol horien bidez auditoretzarako bide fidagarria ezarri behar da, hau da, fakturaren eta bertan dokumentatzen den ondasun ematearen edo zerbitzugintzaren arteko lotura finkatzeko modukoa.

### **9. artikulua. Faktura elektronikoa.**

- 1. Faktura elektronikotzat hartuko dira araudi honetan ezarritakoarekin bat etorritako formatu elektronikoa egin eta jasotzen direnak.
- 2. Faktura elektronikoa egiteko ezinbestekoa da hartzaileak alde aurretik baimena ematea.

### **10. artikulua. Faktura elektronikoaren egiazkotasuna eta osotasuna.**

- 1. Faktura elektronikoaren jatorriaren egiazkotasuna eta edukiaren osotasuna araudi honetako 8. artikuluan azaltzen den bezala bermatu daitezke.

Hain zuzen ere, faktura elektronikoaren jatorriaren egiazkotasuna eta edukiaren osotasuna honela bermatu daitezke:

- a) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1999ko abenduaren 13ko 1999/93/EE Zuzentarauko 2.2 artikuluan xedatutakoarekin bat datorren sinadura elektronikoa aurreratu baten bidez (zuzentaru horretan Batasuneko markoa ezarri zitzaien sinadura elektronikoa). Sinadura elektronikoa aurreratuaren funtsa hauetako bat izan behar da: onartutako ziurtagiri bat, sinadurak sortzeko dispositibo seguru batez sortua, Zuzentarauko 2. artikuluko 6. eta 10. idatz zatietan xedatutakoarekin bat etorri; onartutako ziurtagiri bat, Zuzentarauko 2. artikuluko 10. idatz zatian xedatutakoarekin bat etorri.
- b) Datuak trukatzeko sistema elektronikoa baten bidez (EDI), Batzordearen 1994ko urriko 19ko 94/820/CE Gomendioaren I. eranskineko 2. artikuluan azaltzen den bezala (gomendioa datuen truke elektronikoa alderdi juridikoei buruzkoa da), trukearen inguruko akordioan datuen jatorria egiaztatzeko eta osotasuna bermatzeko prozedurak erabiltzea aurreikusten denean.
- c) Interesdunek jakinarazi eta Ogasun Zuzendaritzak ontzat emandako beste baliabide batzuk erabiliz.

2. Hartzaile bati faktura elektronikoa sorta bat bidaltzen zaionean, faktura guztietan ageri diren xehetasunak behin bakarrik aipatu ahal dira, baldin eta faktura bakoitzetik informazio osoa eskuratzeko aukera badago.

### **11. artikulua. Fakturak egiteko epealdia.**

1. Faktura eragiketa egiten den unean bertan egin behar da.

Hala ere, eragiketaren hartzailea enpresaburua edo profesionala bada, eragiketan enpresaburu edo profesional gisa ari dena, faktura eragiketaren zerga karga sortzen den hilaren hurrengo hilaren 16a baino lehen egin behar da.

2. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Arauko 75. Bat. 8 artikuluan aipatzen diren ondasun emateen fakturak ondasunen bidalketa edo garraioa hasten den hilaren ondoko hilaren 16a baino lehen egin behar dira.

3. (1) Balio erantsiaren gaineko zergaren arauaren IX. tituluko X. kapituluaren arautzen den kutxa irizpidearen arabide berezira lotuta dauden eragiketetan, horiek egiten diren unean bertan egin behar dira fakturak; aldiz, eragiketaren jasotzailea enpresaburua edo profesionala bada eta horrela jarduten badu, eragiketak egin eta hurrengo hilaren 16a baino lehen egin behar dira fakturak.

### **12. artikulua. Faktoretako moneta eta hizkuntza.**

1. Faktoretako zenbatekoak edozein monetatan ezar daitezke; Zerga jasanarazten bada, ordea, horren zenbatekoa eurotan eman behar da, eta horretarako Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Arauko 79. artikuluko hamaikagarren idatz zatian ezarritako truke tasa aplikatuko da.

2. Fakturak edozein hizkuntzatan egin daitezke. Hala ere, Zerga Administrazioak, enpresaburuaren, profesionalaren edo subjektu pasiboaren zerga egoera ikuskatzeko beharrezkotzat jotzen badu, Zergaren aplikazio esparruan egindako eragiketa baten

faktura ofiziala ez den hizkuntza batean egin bada, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial batera itzultzeko eskatu dezake; halaber, EAEn egoitza duten enpresaburu, profesional eta subjektu pasiboek jasotzen dituzten fakturak ere itzultzeko eska dezake.

### **13. artikulua. Hainbat eragiketaren fakturak.**

1. Hartzaile batentzat hainbat egunetan egindako eragiketak faktura bakar batean sartu daitezke, baldin eta eragiketa guztiak egutegiko hil berean egin badira.

2. Honelako fakturak dokumentatu diren eragiketak egin diren hila amaitu aurretik egin behar dira. Hala ere, eragiketen hartzailea enpresaburua edo profesionala bada, eragiketan enpresaburu edo profesional gisa ari dena, faktura eragiketak egin diren hilaren hurrengo hilaren 16a baino lehen egin behar da.

3. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Arauko 75.Bat.8 artikuluan aipatzen diren ondasun emateen fakturak ondasunen bidalketa edo garraioa hasten den hilaren ondoko hilaren 16a baino lehen egin behar dira.

### **14. artikulua. Fakturen kopiak.**

1. Enpresaburuek eta profesionalek edo subjektu pasiboek faktura bakoitzaren jatorrizko ale bat bakarrik egin dezakete.

2. Kasu hauetan soilik egin daitezke jatorrizko fakturen kopiak.

a) Ondasun emate edo zerbitzugintza batean hainbat hartzaile daudenean. Halakoetan, jatorrizko agirian eta kopia guztietan zerga oinarritik eta jasanarazitako kuotatik hartzaile bakoitzari dagokion zatia zehaztu behar da.

b) Jatorrizkoa galtzen denean, dena delakoagatik.

c) [\(6\)](#) TicketBAI betebeharra garatzen duen foru dekretuaren 17. artikulua arautzen dituen inguruabarretan.

3. Aurreko idatz zatian aipatzen diren kopiek jatorrizko agirien eraginkortasun bera edukiko dute.

4. Kopia guztietan "kopia" hitza agertu behar da.

### **15. artikulua. Faktura zuzentzaileak.**

1. Jatorrizko faktura batek ez baditu betetzen araudi honetako 6. edo 7. artikuluan ezarritako betekizunetako bat, faktura zuzentzailea egin behar da (kontuan eduki behar da artikulua honetako 6. idatz zatian ezarritakoa).

2. Halaber, jasanarazitako zerga kuotak gaizki kalkulaturik badaude edo Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Arauko 80. artikuluan xedatutakoaren arabera zerga oinarria aldatzen duen inguruabarren bat gertatzen bada, orduan ere faktura zuzentzailea egin behar da.



Hala ere, zerga oinarriaren aldaketa merkatugaiak edo ontziak eta enbalajeak itzultzearen ondorioa bada eta itzulketa jasotzaile berari beste hornikuntza bat egiteagatik gertatu bada, eta emate eragiketean faktura egin bada, ez da egin beharko faktura zuzentzailea; aitzitik, jasotzaileari egindako bigarren hornikuntzagatik egindako fakturan egin daiteke zuzenketa, hain zuzen ere itzultako merkatugaien edo ontzien eta enbalajeen zenbatekoa aurreko eragiketaren zenbatekotik kenduta. Zuzenketa horrela egin ahal izateko ezinbestekoa da eragiketa guztiei zerga tasa bera aplikatzea, emaitza positiboa zein negatiboa izan.

**3.** Faktura zuzentzailea aurreko idatz zatietan ezarritakoaren arabera egitera beharra dakarren zerbait gertatu dela jakin bezain laster egin behar da, ondo kasuetan izan ezik: lau urte pasatu badira Zerga sortu zenetik; Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Arauko 80. artikuluan aipatzen diren inguruabarrak gertatzen badira.

**4.** (4) Zuzenketa egingo da faktura berri bat jaulkiz, eta, han, zuzendutako fakturaren identifikazio datuak jasota. Zuzenketa agiri bakar batean hainbat faktura zuzendu daitezke, baina horretarako ezinbestekoa da zuzendutako faktura guztiak identifikatzea. Hala ere, eragiketa bolumenagatik emandako deskontu edo hobarien ondorioz aldatzen bada zerga oinarria, ez da beharrezkoa izango fakturak identifikatzea, eta nahikoa izango da zein eperi dagozkion adieraztea; halaber Ogasun Zuzendaritzak horretarako baimena ematen duen kasu guztietan.

Ogasun Zuzendaritzak baimena eman ahal izango du fakturak zuzentzeko beste prozedura batzuetarako, baldin eta interesdunek alde zuzentzeko eskaera egiten badute, betiere justifikatzen bada dena delako jarduera sektorearen merkataritza edo administrazio jardun moldeengatik.

**5.** Faktura zuzentzaileetan araudi honetako 6. edo 7. artikuluan ezarritakoa bete behar da, kasuan kasukoa.

Faktura zuzentzailea egiten bada, 6. artikuluko 1. idatz zatiko f), g) eta h) letretan adierazitako datuak zuzenketaren emaitzakoak izan behar dira. Hain zuzen, 6. artikuluko 1. idatz zatiko f) eta h) letretan araututako datuak bi modutan ezar daitezke: zuzenketaren zenbatekoa adierazita, zuzenean, zeinua gorabehera, edo zuzenketaren ondoriozko kopurua jarrita (modu honetan zuzenketaren zenbatekoa ere adierazi behar da).

Faktura zuzentzaile erraztua egiten bada, 7. artikuluko 1. idatz zatiko f) eta g) letretan (eta, behar denean, 7.2.b artikuluan) aipatzen diren datuak bi modutan ezar daitezke: zuzenketaren zenbatekoa adierazita, zuzenean, edo zuzenketaren ondoriozko kopurua jarrita (modu honetan zuzenketaren zenbatekoa ere adierazi behar da).

**6.** Faktura zuzentzaileetat 1. eta 2. idatz zatietan agertzen diren arrazoiengatik egiten direnak soilik hartuko dira.

Hala ere, aurreko faktura erraztu baten ordean egiten den faktura ez da zuzentzaileetat hartuko hark 7.1 artikuluan ezarritako betekizun guztiak bete bazituen.

## **16. artikulua. Eragiketak dokumentatu beharraren berezitasunak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide berezietan.**

1. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Arauko 131.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko, enpresaburuek eta profesionalek ondasunak edo zerbitzuak erostean konpentsazioak eman behar badizkiete nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezian dauden pertsonei, eragiketa bakoitzaren ordainagiria egin behar dute datu hauekin:

- a) Saila eta zenbakia. Sail bakoitzeko ordainagirien zenbakiak korrelatiboak izan behar dira.
- b) Ordainagiria luzatu behar duenaren izen-deiturak edo sozietatearen izen osoa, identifikazio fiskaleko zenbakia eta helbidea, eta nekazaritza, abeltzaintza, oihangintza edo arrantza ustiapenaren titularrarenak.
- c) Emandako ondasunaren edo egindako zerbitzuaren deskripzioa, eta eragiketa benetan egin den tokia eta eguna.
- d) Ondasunaren edo zerbitzuaren prezioa; Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Arauko 130.Bost artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatu behar da.
- e) Aplikaturako konpentsazio ehunekoa.
- f) Konpentsazioaren zenbatekoa.
- g) Nekazaritza, abeltzaintza, oihangintza edo arrantza ustiapenaren titularraren sinadura.

Enpresaburuek eta profesionalek ordainagiriaren kopia bat eman behar diote ondasuna edo zerbitzua hornitzen duenari, alegia, nekazaritza, oihangintza, abeltzaintza edo arrantza ustiapenaren titularrari.

Araudi honetan fakturei buruz ezarritako gainerako xedapenak idatz zati honetan aipatzen diren ordainagiriei ere aplikatuko zaizkie, bidezkoa den heinean.

2. Titulu honetan ezarritako betebeharez gainera, ondasun erabilien, arte objektuen, antzinako gauzen eta bilduma objektuen araubide berezia aplikatzen zaien subjektu pasiboek betebehaz zehatz hauek ere izango dituzte araubide berezi horren eraginpeko eragiketei dagokienez:

- a) Ez enpresaburu ez profesional ez izan arren hala dihardutenenei egindako erosketen frogagiriak ematea. Eskualdatzaileak erosketa frogagiria sinatu behar du; gainera, 6.1 artikuluko datuak adierazi behar ditu eta bertan ezarritako baldintzak bete.
- b) Subjektu pasibo birsaltzaileek araubide bereziari heldutako emateengatik egiten dituzten fakturetan nahitaez agertu behar dira 6.1.o) edo 7.1.i) artikuluan ezartzen diren aipamenak.

c) Subjektu pasibo birsaltzaileek araubide bereziari heldutako emateengatik egiten dituzten fakturretan ezin dute bereizita jarri Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zioz jasanarazitako kuota; kuota hori eragiketaren prezio osoan sartuzat jo behar da.

3. Bidai agentzien araubide berezia aplikatu ahal zaien eragiketen fakturretan subjektu pasiboek ez dute nahitaez bereizita jarri behar jasanarazitako kuota; zerga kuotarik badago, eragiketaren prezioan sartuzat jo behar da. Hala ere, horrelako eragiketetan hartzailea beste enpresaburu edo profesional bat bada, hala diharduena, eta ondasun edo zerbitzu guztiak Zergaren lurralde eremuan eman edo egin badira, fakturan, interesdunak eskatuz gero, eragiketaren prezio osoaren ehuneko 6 ezar daiteke "prezioan sartutako BEZ kuotak" izenburupean.

Araubide berezi honetan egiten diren eragiketak dokumentatzen dituzten fakturretan nahitaez agertu behar dira 6.1.n) edo 7.1.i) artikuluan ezartzen diren aipamenak.

4. Enpresaburuek eta profesionalek ondasunak ematean baliokidetasun errekarua jasanarazi behar badute, ondasun emate bakoitzeko faktura bat egin behar dute nahitaez, eta bertan emateari aplikatutako errekarua tasa eta errekaruaren zenbatekoa zehaztu behar dituzte.

Baliokidetasun errekaruaren araubide bereziari heldutako txikizkako merkatariak aldi berean enpresa edo lanbide jarduerako beste sektore batzuetan enpresa edo lanbide jarduerak egiten badituzte, bereizita fakturatu behar dituzte araubide berezi horretan dauden jardueretarako egiten dituzten salgaien eskuraketak, batetik, eta gainerako jardueretarako egiten dituztenak, bestetik.

### III. KAPITULUA

#### FAKTURAK BIDALTZEA

##### **17. artikulua. Fakturak bidali beharra.**

Tituluko I. eta II. kapituluetan ezarritakoarekin bat etorritz egiten diren jatorrizko fakturak dokumentatzen dituzten eragiketen hartzaileei bidali behar dizkiete haiek egin behar dituztenek edo beste batzuek beraien izenean.

##### **18. artikulua. [\(3\)](#) [\(4\)](#) Fakturak igortzeko epea.**

Fakturak igortzeko betebeharra, 17. artikuluan ezarritakoa, haiek jaulkitzen diren unean bertan bete behar da, edo, hartzailea empresari edo profesional bat bada, hala jarduten dena, eragiketa horri dagokion zerga sortu den hila amaitu eta hurrengoaren 16.a baino lehen, edo, kutxa irizpidearen araubide bereziaren peko eragiketen kasuan edo zuzenketa fakturen kasuan, eragiketa gauzatu edo dagokion faktura jaulki eta hurrengo hilaren 16.a baino lehen, hurrenez hurren.

## IV. KAPITULUA

### FAKTURAK ETA BESTE AGIRI BATZUK GORDETZEA

#### 19. artikulua. Fakturak eta beste agiri batzuk gorde beharra.

1. Enpresaburuek eta profesionalek Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau orokorrean ezarritako aldian gorde behar dituzte agiri hauek:

- a) Jasotzen dituzten fakturak.
- b) 2. artikuluko 1. eta 2. idatz zatietan ezarritakoarekin bat etorritako fakturen kopiak edo matrizeak.
- c) Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Arauko 97. artikuluko 1. idatz zatiko 4. zenbakian aipatzen diren kontabilitateko frogagiriak.
- d) Araudi honetako 16. artikuluko 1. idatz zatian aipatzen diren ordainagiriak; egileak jatorrizkoa gorde behar du eta ustiapenaren titularrak kopia.
- e) Inportazioetan, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Arauko 97. artikuluko 1. idatz zatiko 3. zenbakian aipatzen diren agiriak.

Betebehar hori Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide berezietan heldutako enpresaburuek edo profesionalek ere badute, eta ez enpresaburu ez profesional ez izan arren Zergaren subjektu pasibo direnek ere bai (hauen kasuan a) eta c) letretan aipatzen diren agiriak soilik gorde behar dira).

2. Agiriak jatorrizko edukia aldatu gabe eta ordenatuta gorde behar dira, araudi honetan ezarri den bezala eta bertan finkatutako epealdiei lotuta.

3. Aurreko idatz zatian aipatutako betebeharrak hirugarren batek bete ahal ditu enpresaburuaren, profesionalaren edo subjektu pasiboaren izenean eta haren kontura. Nolanahi ere, kapitulu honetan ezarritako betebehar guztiak betetzen ez badira, enpresaburua, profesionala edo subjektu pasiboa izango da erantzulea.

4. Hirugarren horrek ez badauka egoitza Europar Batasunean, betebehar hau hirugarren batek soilik bete dezake, Ogasun Zuzendaritzari jakinarazi ondoren. Salbuespena: hartzaileak edo faktura egiten duenak egoitza Kanarrietan, Zeutan edo Melillan edukitzea edo Kontseiluak zerga, eskubide, zerga eta beste neurri batzuei dagozkien kredituen kobrantzaren arloko elkarrekiko laguntzari buruz 2010eko martxoaren 16an emandako 2010/24/UE Zuzentarauan eta Kontseiluak 2010eko urriaren 7an Balio Erantsiaren gaineko Zergaren inguruko administrazio lankidetzari eta iruzurraren kontrako borrokari buruz emandako 904/2010 Araudian ezarritakoaren antzeko elkarrekiko laguntzarako tresna juridiko bat dagoen herrialde batean.

## **20. artikulua. Fakturak eta beste agiri batzuk gordetzeko moduak.**

1. Araudi honetako 19. artikuluan aipatzen diren agiriak (paperezkoak zein elektronikoak) gordetzeko erabiltzen den sistemak haien jatorriaren egiazkotasuna, edukiaren osotasuna eta irakurgarritasuna bermatu behar ditu, 8. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, bai eta Zerga Administrazioak inolako berandutzarik gabe aztertzeko modua edukitzea ere, kontrako arrazoirik izan ezean.

2. Betebehar hau baliabide elektronikoak erabiliz bete daiteke. Horri dagokionez, hauxe izango da agiriak baliabide elektronikoen bidez gordetzea: agiriak datu tratamendurako (trinkotze numerikoa barne) eta datuak biltegitatzeko ekipu elektronikoen bidez gordetzea, baliabide optikoak edo bestelako baliabide elektromagnetikoak erabiliz.

## **21. artikulua. Fakturak eta beste agiri batzuk baliabide elektronikoak erabiliz gordetzea.**

1. Araudi honetako 20. artikuluan aipatzen diren agiriak baliabide elektronikoen bidez gordetzen direnean, jaso edo bidali diren jatorrizko formatuan irakurri ahal direla bermatu behar da, eta, behar izanez gero, haiei lotutako datuak, sinadura egiaztatzeke mekanismoak edo jatorriaren egiazkotasuna eta edukiaren osotasuna bermatzen duten beste osagai batzuk ere bai.

Zerga Administrazioak agirien igorleari edo jasotzaileari noiznahi eskatu ahal dio agiriak lengoia irakurgarrira bihurtzeko.

2. Baliabide elektronikoen bitartez gordetzen diren agiriak kudeatzeko eta gordetzeko erabiltzen diren baliabideek bermatu behar dute Zerga Administrazioak datuak eskuratzeko lineako sarbide osoa daukala eta datuak urrunetik kargatu eta erabili ahal dituela, eskatu ahala eta atzerapenik gabe, kontrako bidezko arrazoirik izan ezean.

Sarbide osoa edukitzea hauxe da: datuak pantailaratu ahal izatea, datuen bilaketa hautakorrak egin ahal izatea eta datuak linean kopiatu edo inprimatzeko deskargatu ahal izatea.

## **22. artikulua. Fakturak eta beste agiri batzuk gordetzeko lekua.**

1. Kapitulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, fakturak eta beste agiri batzuk gorde behar dituen enpresaburuak, profesionalak edo subjektu pasiboak berak erabaki ahal du betebehar hori non bete. Betiere, Zerga Administrazioako organoren batek zerga egoera ikuskatu nahi badio, haren esku jarri behar ditu gordetzen dituen agiri eta informazio guztiak eta haren eskaera guztiak bete behar ditu, eta hori guztia berandutu gabe egin behar du, kontrako bidezko arrazoirik izan ezean.

2. Agiriak Espainiatik kanpo gordetzen badira, betebeharra behar bezala betetzat jotzeko ezinbestekoa da baliabide elektronikoek bermatzea Zerga Administrazioak agiriak eta informazioa eskuratzeko lineako sarbide osoa daukala eta urrunetik kargatu eta erabili ahal dituela.

Enpresaburuek, profesionalak edo subjektu pasiboek agiriak Espainiatik kanpo gorde nahi izanez gero, aurretik jakinaren gainean jarri behar dute Ogasun Zuzendaritza.

**23. artikulua. Zerga Administrazioak fakturak eta beste agiri batzuk eskura edukitzea.**

Araudi honetako 19. artikuluan aipatzen den betebeharra (fakturak eta beste agiri batzuk gorde beharra) baliabide elektronikoen bitartez betetzen bada, enpresaburuaren, profesionalaren edo subjektu pasiboaren zerga egoera ikuskatu nahi duten Zerga Administrazioako organo guztiek gordetzen diren agiri guztiak eskuragarria edukitzea bermatu behar da, bai eta urrunetik kargatu eta erabili ahal izatea ere. Betebehar hori agiriak gordetzen diren tokia gorabehera bete behar da.

## **V. KAPITULUA**

### **BESTE XEDAPEN BATZUK**

**24. artikulua. Fakturazioaren inguruko auziak ebaztea.**

Administrazioarekiko diru erreklamazioa jartzeko, zergen arlokotzat joko dira fakturak eta araudi honetan aipatzen diren gainerako agiriak egitea, zuzentzea edo bidaltzea dela eta sortzen diren auziak, baldin eta zergen arloko egitateen edo Zuzenbideko arazoen ondorioz sortzen badira.

## **II. TITULUA**

### **ERAGIKETAK DOKUMENTATU BEHARRA BESTE ZERGA BATZUETAN ETA BESTE ESPARRU BATZUETAN**

**25. artikulua. I. tituluko xedapenen aplikazioa.**

I. tituluko xedapenak beste edozein zerga, dirulaguntza eta laguntza publiko guztietan aplikatuko dira, berariazko arautegian eta araudi honetako 26. artikuluan ezarritakoa gorabehera.

**26. artikulua. Eragiketarako dokumentatu behar diren pertsonen berezitasunak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ordainketan.**

1. [\(2\)](#) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek jarduera ekonomikoen bitartez etekinak lortzen badituzte, jardueran ari direla egiten dituzten eragiketarako fakturak egin behar dituzte, eta haien kopiak ere bai, arautegi honetan ezartzen denarekin bat etorri, balio erantsiaren gaineko zergaren ordainketarako aplikatzen zaien araubidea gorabehera.

**(6)** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek eta jarduera ekonomikoen etekinak errenta egozketan jasotzen dituzten erakundeek, erregelamendu honen 1. artikulua xedatutakoaren arabera, egiaztagiria eta haren kopia egin beharko dituzte, erregelamendu honen 3.1 artikulua a) eta d) letretan xedatutakoaren arabera fakturarik egiten ez duten eragiketengatik.

2. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia aplikatzen zaien jardueretako eragiketetan, aurreko idatz zatian ezarritako betebeharrak betetzat jotzeko aski izango da eragiketaren hartzaileak araudi honetako 16. artikuluko 1. idatz zatian aipatzen den ordainagiria bidaltzea.

**(6) 27. artikulua. Sozietateen gaineko Zergan, eragiketak dokumentatzeko betebeharra.**

Zerga honen zergadunek, erregelamendu honen 1. artikuluan araututakoari jarraiki, egiaztagiria eta haren kopia egin beharko dituzte, erregelamendu honen 3.1. artikulua a) eta d) letretan xedatutakoaren arabera fakturarik egiten ez duten eragiketengatik.

**(6) 28. artikulua. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, eragiketak dokumentatzeko betebeharra.**

Establezimendu iraunkorraren bidez errentak lortzen dituzten Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunek betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Beren jarduera garatzean egiten dituzten eragiketengatik faktura eta horren kopia egiteko betebeharra, erregelamendu honetan araututako baldintzetan, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako dagokien araubidea edozein dela ere.

Aurreko lerrokan ezarritako betebeharra betetzat joko da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide bereziaren barruan dauden jarduerak garatzean egindako eragiketaren pertsona edo erakunde hartzaileak 16.1 artikulua xedatutako ordainagiria ematen duenean.

b) Erregelamendu honen 1. artikulua araututakoari jarraiki, erregelamendu honen 3.1 artikulua a) eta d) letretan xedatutakoaren arabera fakturarik egiten ez duten eragiketengatik egiaztagiria eta horren kopia egiteko betebeharra

**(6) 29. artikulua. Eragiketak egiaztagiri bidez dokumentatzeko betebeharra arautzea.**

Eragiketak egiaztagiri bidez dokumentatzeko betebeharra betetzeko, erregelamendu honen I. tituluaren eragiketak faktura bidez dokumentatzeko betebeharrari buruz xedatutakoa beteko da, 2. eta 3. artikuluetan xedatutakoa izan ezik.

Erregelamendu honetako I. tituluaren xedatutakoaren arabera, eragiketak fakturen bidez dokumentatzen direnean, ulertuko da eragiketen dokumentazio betebeharra bete dela, egiaztagiri bidez.

## **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

### **Lehenengoa. Fakturazioaren inguruko betebeharrak beste arlo batzuetan.**

Araudi honetan xedatutakoak ez ditu ukitzen enpresaburuek eta profesionalak merkataritzan, finantzetan eta aseguruetan beren lanbide jardueren araubidean fakturak edo antzeko agiriak egin, eman eta gordetzearen inguruan dauzkaten gainerako betebeharrak, ez eta dirulaguntzen eta laguntza publikoen inguruko betebeharrak eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsaren inguruko betebeharrak ere.

### **Bigarrena. [\(3\)](#) Energia elektrikoa emateko zenbait entregaren fakturazioa.**

1. Energia elektrikoa ekoizteko merkatuari lotutako energia elektrikoaren trukeak, Sektore elektrikoaren 24/2013 Legeko 28. eta 30. artikuluetan aipatzen direnak, bai eta abenduaren 26ko 2019/1997 Errege Dekretuak, energia elektrikoa sortzeko merkatua antolatu eta arautzen duenak, 2. artikuluan aipatzen dituenak ere, sistema eragileak dokumentatu beharko ditu, Sektore elektrikoaren Legean eta hori garatzen duen araudian ezarritakoaren arabera eman zaizkion funtzioekin bat etorritz.

2. Energia elektrikoaren entregak aipatutako eragileak emandako fakturen bitartez dokumentatuko dira, energia hornitu duten entitateen izen eta kontura; fakturretan araudi honen 6.1 artikuluan aipatutako datu guztiak agertu beharko dira, eta eragiketaren hartzailea identifikatzeko datuak sistemako eragilea identifikatzekoak izango dira; azken horrek egindako jatorrizko faktura gorde beharko du, eta hornitzaileari kopia bat igorri beharko dio.

3. Sistema eragileak faktura bat emango du eskuratzaileri bakoitzari egindako entregengatik; horietan araudi honen 6.1 artikuluan aipatutako datu guztiak agertu beharko dira, eta emalea identifikatzeko datuak sistema eragilea identifikatzekoak izango dira; azken horrek faktura horien kopiak gorde beharko ditu, eta jatorrizkoa horien hartzaileari igorri beharko dio.

4. Xedapen gehigarri honetako aurreko ataletan aipatutako agiriak sistemako eragileak gorde behar baditu, orduan faktura gisa hartuko dira araudi honetan ezarritakoaren ondorioetarako, eta Zerga Administrazioaren eskura egongo dira preskripzio aldiaren beharrezko egiaztapen lanak egin ahal izateko, kasuan kasuko fakturretan islatutako energia elektrikoaren entregei dagokienez.

5. Sistema eragileak hirugarren pertsonetara eragiketen urteko aitortzean jaso beharko ditu energia elektrikoaren hornitzaileak eta eskuratzailerak egindako eragiketak, martxoaren 3ko 21/2009 Foru Dekretuak, hirugarren pertsonekin egindako eragiketei buruzko argibideak emateko betebeharrak arautzen zuenak, aurreikusitako inguruabarretan, eragiketa horiek dokumentatu badira xedapen gehigarri honen aurreko ataletan adierazitakoaren arabera; hornitzaile eta eskuratzaileri bakoitzari dagokionez, aitortzearen aldiaren egindako eragiketen zenbateko osoa agerrarazi beharko da, eta hornitzaile bakoitzari leporatutako energia entregak erosketa gisa jasoko dira, eta salmenta gisa, berriz, eskuratzaileri bakoitzaren energia eskuraketak.



6. Nolanahi ere, eta xedapen erantsi honetan aipatutako eragiketei dagokienez, sistema eragileak laguntza eman behar dio Zerga Administrazioari; hain zuzen ere, eragiketa horien zerga tratamendu egokirako garrantzia duten datu, txosten edo agiri guztiak eman behar dizkio.

Fakturatutako aldiaren kobrantza eskubideak eta ordaintzeko betebeharrak energia elektrikoa behin emateari lotuko zaizkio, aldi horrengatik.

7. Sistema eragileak hirugarren bat gaitu ahalko du entitate hornitzaileen eta eskuratzzaileen artean kontraparte zentral gisa aritzeko; hala, ondorio guztietarako ulertuko da energia elektrikoen entregak entitate hornitzaileak eman dizkiola aipatutako hirugarrenari, eta, aldi berean, entitate eskuratzzaileek jasotzen dituztela. Kasu horretan, eragiketaren hartzailearen eta jaulkitzailearen identifikazio datuen ordez, kontraparte zentral gisa gaitu den hirugarren pertsonaren datuak jarri behar dira, eta hirugarren horrek bete beharko ditu xedapen gehigarri honek kontraparte zentral gisa jarduteko gaitu duen operadoreari ezartzen dizkion fakturazio betebeharrak.

#### **Hirugarrena. Zenbait zerbitzuren fakturazioa, bidai agentziak bitartekari aritzen direnean besteren izenean eta kontura.**

1. [\(4\)](#) Xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera jaulkiko dira honako baldintza hauek betetzen dituzten zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fakturak:

a) Zerbitzu prestazio horiek kontratatzeko, sektoreko araudiaren arabera bidaia agentziak diren empresari edo profesionalak parte hartu izana bitartekari gisa inoren izenean eta kontura."

b) Hartzaileak, izaera hau edo bestea izan, bidaia agentziari eska diezaiola zerbitzu horien faktura jaulki izana.

c) Honako zerbitzu hauetakoren bat izan dadila:

a´) Bidaiarien eta haien bagajeen garraioa;

b´) Ostalaritza, akanpalekuak eta bainuetxeak;

c´) Jatetxeak eta cateringa;

d´) Garraiabideen epe motzerako errentamendua;

e´) Museoak, arte galeriak, pinakotekak, monumentuak, leku historikoak, lorategi botanikoak, parke zoologikoak eta natura parkeak eta beste naturagune babestu antzekobatzuk;

f´) Kultura, arte, kirol, zientzia, hezkuntza, jolas, feria eta erakusketa ekitaldietara sarbidea ematea;

g´) Bidaia agentziak.

h´) [\(5\)](#) Bidaia agentzien araubide berezia aplikatzen zaien bidaia zerbitzuak.

2. (4) Faktura horiek datu hauek eduki behar dituzte eta betekizun hauek bete behar dituzte, ezertan galarazi gabe beste edozein aipamen sartzeko aukera:

a) Berriaz ohartarazi behar dute bidaia agentziak xedapen gehigarri honetan ezarritakoaren babesean jaulkitako faktura bat dela.

b) Araudi honetako 6. artikuluan (edo, hala balegokio, 7. artikuluan) aipatzen diren datuak eta betekizunak. Hala ere, 6. artikulua 1c), d) eta e) letretan eta 7. artikulua 1.d) zenbakian aipatzen diren fakturak jaulkitzeko betebeharra duenaren datu gisa, hauek utzi behar dira jasota: bidaia agentziari buruzkoak, eta ez bitartekaritza horren bidez ematen den zerbitzua ematen duen enpresari edo profesionalarenak.

c) Horrez gain, jaulkitako fakturretan aipamen garbia egin behar zaio haietan dokumentatzen diren zerbitzuetakobakoitzari, eta, orobat aipatu beahr dira eragiketen hartzaileari buruz 6. artikulua 1c), d) eta e) letretan aipatzen direnak. Halaber, faktura horiek gainerakoetatik bereizitako seriean egin behar dira.

3. (4) Inoren izenean eta kontura ematen diren bitartekaritza zerbitzuak, bidaia agentziak hartzaileari ematen dizkion zerbitzuei buruzkoak, agentziak berak ere dokumentatu ahal ditu xedapen gehigarri honetan aipatzen diren fakturen bidez. Halakoetan, dagokion fakturan bereizita eman beharko dira bitartekaritza zerbitzu horri dagozkion datuak, araudi honetan aurrikusitakoaren arabera fakturan agertu behar dutenak.

4. Hainbat enpresaburu edo profesionalek jasotzaile berari gehienez ere hilabetean egindako zerbitzu guztiak faktura bakarrean dokumentatu ahal dituzte bidai agentziek, beraien egindako faktura batean, alegia.

5. Aurreko idatz zatietan ezarritakoa eragotzi gabe, xedapen gehigarri honen babesean bidai agentziek egiten dituzten fakturei araudi honetan ezarritakoa aplikatuko zaie.

6. (4) Honelako fakturak jaulkitzen dituzten bidaia agentziek, bestalde, jaulkitako fakturen erregistro liburuan idatzi beharko dituzte, balio erantsiaren gaineko zergaren erregelamenduaren 63. artikuluan aurrikusten den erregistro liburuan, alegia. Idazpen horiek modu egokian egin behar dira, hain zuzen ere, bereiziz xedapen gehigarri honetako 1. zenbakian aipatzen diren eragiketen zenbatekoak 3. zenbakian aipatzen diren zerbitzuen zenbatekoetatik eta beste agiri edo faktura batzuetan jasotako eragiketen zenbatekoetatik.

7. (4) Honelako fakturak egiten dituzten bidai agentziek informazio hau adierazi behar dute hirugarrenekin egindako eragiketen urteko aitopenean:

a) Salmenta gisa, fakturen bidez dokumentatutako zerbitzuei buruzko informazioa, behar bezala bereizita.

b) Erosketa gisa, inoren izenean eta kontura bitartekari gisa parte hartzen duten zerbitzu prestazioei dagokien informazioa, xedapen honetan aipatzen dena, behar bezala bereizita.

8. Xedapen gehigarri honetan aipatutako fakturak eginez gero, bidai agentziek laguntza eman behar diote Zerga Administrazioari eta dokumentatutako zerbitzuei buruz fakturretan ageri diren estatik zergen arloan garrantzia izan dezaketen datu edo aurrekariari berri eman behar diote.

### **Laugarrena. Fakturazioaren inguruko betebeharrak arautu dituen 24/2004 Foru Dekretuaren aipamenak.**

Fakturazioaren inguruko betebeharren araudia onartu eta apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuak onartutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araudia aldatu zuen martxoaren 23ko 24/2004 Foru Dekretuaren aipamenak araudi honi buruz egintzat joko dira fakturazioaren inguruko betebeharrari dagokienez.

### **Bosgarrena. Energiaren Batzorde Nazionalak fakturak egitea araubide berezian dauden energia elektrikoaren ekoizleen edo haien ordezkarien izenean eta haien kontura.**

1. Energia elektrikoa araubide berezian ekoizteko jarduera araupetu duen maiatzaren 25eko 661/2007 Errege Dekretuko 30. artikuluan ezarritakoaren arabera, elektrizitatea araubide berezian ekoizten dutenen prima baliokideak, primak, pizgarriak eta osagarriak likidatzea eta ordaintzea Energiaren Batzorde Nazionalaren egitekoak dira. Bada, batzorde horrek likidazio eta ordainketa horien fakturak egin behar ditu energia elektrikoaren ekoizleen edo haien ordezkarien izenean eta haien kontura.

Gainera, Energiaren Batzorde Nazionalak fakturak egin behar ditu berak ezartzen dituen betekizunak betetzen dituzten elektrizitate banatzaileen izenean eta kontura, horiek kontsumitzaileei maiatzaren 25eko 661/2009 Errege Dekretuko 30. artikuluan eta energia elektrikoaren sektorean azken baliabidearen hornidura abiaraztea arautu duen apirilaren 3ko 485/2009 Errege Dekretuko zazpigarren xedapen gehigarrian aipatzen dituen prima baliokideak, primak, pizgarriak eta osagarriak kobratzen dizkietenean.

2. Aurreko idatz zatian aipatutako fakturretan araudi honetako 6. artikuluko 1. idatz zatian adierazitako datu guztiak agertu behar dira; salbuespenak: jasotzailearen identifikazio datuak ekoizleen edo haien ordezkarien kontura egiten diren fakturretan; bidaltzailearen identifikazio datuak banatzaileen kontura egiten diren fakturretan. Bi kasu horietan datu horiek gabe Energiaren Batzorde Nazionalaren identifikazio datuak agertu behar dira.

Energiaren Batzorde Nazionalak egiten dituen jatorrizko fakturak gorde behar ditu eta kopiak bidali behar dizkie banatzaileei eta ekoizleei, edo haien ordezkariari.

Energiaren Batzorde Nazionalak gorde beharreko fakturak Zerga Administrazioaren eskura egongo dira haietan jasotako hornikuntzen inguruko egiaztapenak egiteko epealdia amaitu arte.

3. Energiaren Batzorde Nazionalak urtean hirugarrenekin egindako eragiketen aitorpenean jaso behar ditu energia elektrikoaren ekoizleek eta haien ordezkariak eta banatzaileak egin eta xedapen gehigarri honetan ezarritakoarekin bat etorritik dokumentatutako eragiketari guztiak. Hori egiten duenean, ekoizle (edo ordezkari) eta

banatzaile bakoitzeko datu hauek adierazi behar ditu: aitorpenaren zergaldian egindako eragiketen guztirako zenbatekoa, araubide bereziko ekoizle edo ordezkari bakoitzari egotzitako energia elektrikoaren emateak erosketa gisa jasota eta banatzaile bakoitzari xedapen gehigarri honetan aipatutako prima baliokide, prima, pizgarri eta osagarriez jakinarazitako sarrera errekerimenduak salmenta gisa jasota.

4. Xedapen gehigarri honetan ezarritakoak ez du eragozten Energiaren Batzorde Nazionalak maiatzaren 25eko 661/2009 Errege Dekretuko 30. artikuluan eta apirilaren 3ko 485/2009 Errege Dekretuko zazpigarren xedapen gehigarrian aipatzen dituen prima baliokideak, primak, pizgarriak eta osagarriak direla eta egiten dituen sarrera errekerimenduengatik banatzaileei agiria bidali beharra.

5. Kobratzeko eskubideak eta ordaintzeko betebeharrak, fakturazioaren epealdikoak, energia elektrikoaren emate bakar bati lotuta egongo dira.

6. Nolanahi ere, eta xedapen gehigarri honetan aipatutako eragiketei dagokienez, Energiaren Batzorde Nazionalak laguntza eman behar dio Zerga Administrazioari: eragiketa horien zerga tratamendu egokirako garrantzia duten datu, txosten edo agiri guztiak eman behar dizkio.

## **XEDAPEN IRAGANKORRAK.**

### **Lehenengoa. Fakturak hirugarren batek egin edo gordetzen dituela jakinaraztea.**

Araudi honetako 5. artikuluko 4. idatz zatia eta 19. artikuluko 4. idatz zatia direla eta, Ogasun Zuzendaritzak fakturak hirugarren batek egiteko edo gordetzeko baimena eman badu edo baimen hori eskatzeko prozedura hasita badago, zergapekoak ez du edukiko Zerga Administrazioari berariaz jakinarazi beharrik, fakturazioaren inguruko betebeharrak arautu dituen 24/2004 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz.

Aurreko paragrafoan aipatutako baimen eskaeretatik araudi hau indarrean jartzean aribidean daudenak jakinarazpentzat hartuko dira, eta orduantxe egintzat joko dira; salbuespena: jakinarazleari esaten bazaio aurkeztu duen dokumentazioa ez dela nahikoa, jakinarazpena dokumentazioa osatzen duenean joko da egintzat. Dokumentazio gehiago aurkezteko errekerimendua araudi hau indarrean jartzen denetik hiru hilabete pasatu baino lehen egin behar da.

### **Bigarrena. Ordezko agiriak ordeztea edo trukatzeta.**

1. Araudi hau indarrean jartzen denetik aurrera fakturazioaren inguruko betebeharrak arautu dituen 24/2004 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz egindako ordezkari fakturekin ordeztu edo haiengatik trukatu ahal izango dira 2. artikuluko 2. idatz zatiko a) letran azaldutako kasuetan.

2. Agiri horiek dokumentatzen dituzten eragiketen sortzapen egunaren ondoko lau urteetan ordeztu edo trukatu ahal izango dira.

3. Horrelakoetan faktura (ordezkoa edo trukean egina) ez da hartuko faktura zuzentzailatzat.

## **OHARRAK**

- (1) 30/2014 Foru Dekretua, ekainaren 10ekoa.  
(ALHAO, 69. zk., 14-6-20koa).
- (2) 9/2015 Foru Dekretua, martxoaren 10ekoa.  
(ALHAO, 33. zk., 15-3-18koa).
- (3) 56/2017 Foru Dekretua, abenduaren 5ekoa.  
(ALHAO, 141. zk., 17-12-13koa).
- (4) 29/2018 Foru Dekretua, ekainaren 26koa.  
(ALHAO, 77. zk., 18-7-26koa).
- (5) 31/2019 Foru Dekretua, ekainaren 18koa.  
(ALHAO, 73. zk., 19-6-26koa).
- (6) 48/2021 Foru Dekretua, urriaren 5ekoa.  
(ALHAO, 117.zk, 21-10-13koa).
- (7) 2/2022 Foru Dekretua, urtarrilaren 11koa.  
(ALHAO, 8.zk, 22-1-19koa).